

**<< Musika 4 >>**

**C: E. Gandiaga**

**Área 2- Creación y Expresión Artística**  
**2. Arloa: Sormen eta Espresio Artistikoa**  
**(Euskarazko bertsioa)**  
**Julio, 2003ko uztaila**

# MUSIKAREN GAUR EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNA AZTERTU ETA BALIOESTEKO JARRAIBIDEAK

## SARRERA

Kulturaren Euskal Planaren barruan, hainbat txosten aurkeztu dira musika-arloari dagokionez. Txosten horietan, musika klasikoaren alderdi guztiak aztertu dira, zehatz-mehatz (trebakuntza, sorkuntza, zabalkuntza...). Nabarmendu behar da, hala ere, gure Autonomia Erkidegoko musikak barne hartzen dituela beste hainbat musika ere: musika tradizionala, musika modernoa (pop-rocka), jazz, *world music* izenekoak eta abar.

Beste musika horiek sektore jakin bat osatzen dute, bizitasun handikoa eta, besteak beste, interpretatzaile ugari biltzen dituena. Bizitasun horretaz jabetzeko, ikusi besterik ez dago zenbat kontzertu eta jaialdi antolatzen diren gaur egun, zenbat talde, diskoetxe, argitaletxe, saltoki eta abar dauden, zenbat grabazio egiten diren, eta, jarduera horien guztien inguruan, zenbat enpresa mugitzen diren (soinu-enpresak, argiztapen-enpresak, askotariko azpiegiturek...). Horri guzti horri esker, beraz, Euskal Herriaren kultur aldiririk bizienetako bat da “musika ez-klasikoa”, ezezagunenetako bat ere baden arren.

Musikaren atal hori da, gainera, herriaren islarik onena. Begiratu, adibidez, Irlandara (nortasunaren adierazgarri da hango musika), edo Galiziara (hango musikaren kasua ere aipagarria da).

Gurean ere, hortxe daukagu Euskal Herriaren nortasunaren adierazleetako bat, musika herrikoian eta izan duen bilakaeran.


Hemen dioguna osatzeko, hala ere, kontuan izan behar dugu musikak eta musikaren ingurumariak eragile ugari biltzen dituela. Horietako bakoitzak, gainera, oso ezaugarri zehatzak ditu, hain zehatzak, ezen zaila baita agenteen sektore bakoitza banan-banan eta berezitasun guztiekin aztertzea.

Horretara ezker, argitu dezagun musika ez dela zer abstraktu bat, ez dela musikagilearen sormenarekin hasi eta bukatzen den zer bat. Zerbait gehiago da; kulturaren industria egituratzen duen bizkarrezurraren lehen zatia.

Sektore honek parte-hartzaile ugari ditu, ezinbestean. Musikagilea, musika interpretatuko duen taldea, grabatuko duen estudioa, argitaratuko duen diskoetxea, ezagutzera emateko horma-irudiak egingo dituen inprenta, prentsa-txostenak prestatuko dituen, kontzertua salduko duena, kontzertua antolatuko duena (instituzioa nahiz pribatua), ikuskizunean parte hartuko duten enpresak (eszenatokia, soinua, argiztapena, hesiak, aldagelak, segurtasun-agenteak), Espainiako Autoreen Elkarte Orokorra (S.G.A.E.) —egileen zerga-biltzaile den hori—, ekitaldiaren kritika egin eta zabalduko duten hedabideak, eta, nola ez ikuslea —bera baita musika-lanaren azken xedea—.

Baina badira beste alderdi batzuk ere, kanta bat kaleratze horretan ikusi ere egiten ez direnak, hala nola musika-irakaskuntza eta, orobat, musika herriarentzat zer den erakutsi eta zabalduko duten azpiegiturak.

Musika klasikoak edo kultuak hartzen ez dituenak, beraz, beste musika batzuen atalean sartuko ditugu.



## MUSIKA HERRIKOIA



Ez dok amairu sortu zenean, aldaketa-haizeak iritsi ziren euskal musikaren esparrura, eta eguneratze-bidean jarri zen, horrenbestez. Hala, lekutxo bat lortu zuen euskal kantagintzak entzuleen artean. Garai bertukoa da, baita ere, Kataluniako *nova canço*.

Gaur egungo euskal musikari begiratzen badiogu, hainbat arlo dituela ikusiko dugu, horien osasuna badaezpadakoa bada ere. Arloon artean ditugu, besteak beste, pop-rockaren fenomeno, euskal rock erradikalaren sorrera (Euskal Herriaren mugetatik kanpo gehien zabaldu den musika-alderdia izango da seguru asko) eta, azken urte hauetan, jazz, bluesa eta, neurri txikian bada ere, *world music* deritzan horren baitako uztarketak.

Egun, gainera, hainbat musika-talde ditugu, erreferente izatera iritsi direnak, baina ez bakarrik gure lurraldean. Hor zehar egiten diren lehen-mailako jaialdi eta biretan parte hartzera deitzen dituztenak ez dira gutxi, hala nola Oskorri, Kepa Junkera, Oreka TX, Su Ta Gar eta abar.

Aipamen berezia merezi du, bestalde, euskal poparen sorrerak. Hainbat musika-talde indartsu sortu dira, azken urteetan. Musika unibertsalago bat-edo egiten dute, baina, guztiarekin ere, hemengo musika modernoaren ordezkari bihurtu dira. Duncan Dhu dugu horietariko bat —laurogeiko hamarkadan sorturikoa—, baina badira berriagoak ere: La Oreja de Van Gogh, Alex Ubago... Zerrenda luzeagoa da, zalantzarik gabe.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Musikei buruz argitaratu duen azken katalogoan, konparaziorako, 200 talde ageri dira, estilo guztietan sailkatuta.

Talde gehiago ere badago bazterretan. Askok ez dute jarraitasun handirik, eta bizitza laburrekoak izango dira, agian; baina, dudarik ez dago, zeregin garrantzitsua dutela etorkizuneko musikariak trebatzeko bidean. Zenbat eta talde edo musikari gehiago izan, orduan eta handiagoa izango da haietariko batzuk sendotzeko aukera.

## **JARRAIBIDE OROKORRAK**

### **TREBAKUNTZA ETA IKERKUNTZA**

Aipagai ditugun musika hauetan, jendea autodidakta da, neurri handi batean. Hala ere, asko zabaldu da, azkenaldian, musikan trebatzeko aukera, musika-eskola, -akademia eta -kontserbatorioen lanari esker. Horri esker sortu dira, han eta hemen, musika-bandak, txistu-joleak, trikitilariak, jazz-taldeak... Nahiko trebakuntza-maila handia sumatzen zaie, gainera.

Trebakuntzaren gaia nahiko aurreratuta dagoela dirudi. Baina argi dago talde eta musikari horiek guztiek musika jotzeko aukerak behar dituztela, ekitaldietarako lokalak behar dituztela.

Azken urteotan, musika-banden itzulera ezagutu dugu. Udalen soldatapean egoten ziren, lehen; talde eta elkarte herrikoiei esker bizi dira, gaur, asko eta asko. Fanfarreak ere ezin ahaztuko ditugu. Herri-festetan parte hartzeko sortu ziren hasieran; baina, denboran zehar, talde egonkor izatera iritsi dira haietako asko.

Musika modernoari dagokionez, aipamen berezia merezi du pop-rockak. Ehunka talde autodidakta daude herrietan barrena, eta eskaera nagusi bera dute ia guztiek: entseatzeko eta jende aurrean jotzeko lokalak behar dituzte.

Musikaren ikerkuntzari buruz, bi hitz besterik ez. Bi alderdi hauek landu dira, gehien bat: folkloreaken tradizioa, batetik, eta, bestetik, gure ondarearen berreskurapena eta, batzuetan, eguneratzea ere.

### **ZABALKUNTZA**

Musika-sorkuntzaren alderdi garrantzitsuenetariko bat da, zalantzarik gabe. Ezinbestekoa da nork bere proiektua zabaltzen jakitea, hedabideekin harreman egokiak izatea eta, harreman horien ondorioz, gure proiektuan sinets dezaten lortzea.

Sektore honek nola edo hala lortu behar du gure proiektuak erakargarriak izatea, hedabideen ikuspegitik begiratuta erakargarriak izatea. Hedabide publikoen kasuan, beti izango du pisua gure musika guztion interesa delako argumentuak. Baina, egia esan, bide-erdia eginda genuke, gure eskaintza hedabideen interesekoa izatea lortuko bagenu.

Ez da hain zaila, ordea. Kulturaren arlo batzuk badoaz, apurka-apurka bada ere, nolabaiteko oihartzuna lortzen hedabideetan.

Arte plastikoak, zinemak, operak, antzerkiak eta, halaber, musika herrikoiak lortu dute hedabideetan lekua egitea. Leku hori handitzea da, orain, erronka, baina hedabideei gure eskaintza interesgarri eginaraztea da lehentasuna.

Rock musikak eta, nola ez, musika herrikoiak ere, oihartzun mediatiko handia lor dezakete, zalantzarik gabe. Hor dugu, esaterako, Rolling Stones taldearen fenomeno musikal, mediatiko eta ekonomikoa —salbuespentzat hartu behar den arren—.

Gure musika hedabideen bitartez zabaltzea oso garrantzitsua dela onartuta ere, ezin dugu ahaztu instituzioek ere zeresan zuzena dutela eginkizun horretan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ekin dio zeregin horri, *Euskadiko Soinuak* proiektuaren bitartez. Tresna egokia dirudi, gainera, euskal musika modu oso eta egoki batez ezagutzera emateko.

Aurrerantzean jorrazeko moduko bide eraginkorrak izan daitezke, besteak beste, azoka espezializatuetan parte hartzea, eta musikari buruzko web gune bat sortzea. Hala, Internet-ek eskaintzen dituen aukerak baliatuko genituzke, ahalik eta zabalkuntzarik handiena emateko Euskal Herrian sortutako musikari.

## **JARRAIBIDEAK**

Honako jarraibide hauek proposatzen ditugu:

1. Musika zabaltzeko programak sustatzea. Hedabide publikoetan (irradi, telebista...) musika guztien zabalkuntza ziurtatzeko programak sustatzea.
2. Musikari buruzko web gunea indartzea. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak web gune bat prestatu du, musika guztiak bildu eta horretan diharduten sektore guztiak kontuan hartuko dituen. Orotariko gida-aldizkari gisa balio izango du, eta hainbat hizkuntzatan egongo da, mundu osorako da eta.
3. Azoka espezializatueta Euskadiko musika egon dadin ziurtatzea. Sektore guztietan antolatzen diren azoketara joan beharra dago, eta gaur egungoetara joaten jarraitu behar da: Vic, Cannes, Womex...
4. Instituzioen parte-hartzea lortzea. Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen, aldundien, udalen eta erakunde ofizialen parte-hartzea lortu behar da, euskal musika erabil dezaten beren esku dauden sustapen-kanpainetan, edozein arlotakoak direlarik ere.
5. Euskadin antolatzen diren musika-ekitaldiak indartzea, eta halakoek duten balio erantsia baliatzea. Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailak, esaterako, jazz-kanpainak bultzatu ditu azken urteotan, Getxon, Gasteizen eta Donostian urtero antolatzen diren jazzaldien harira.
6. Euskadiko Musikak kanpaina indartzea, eta, dagoeneko biltzen dituen pop-rock, folk eta musika berriez gain, musika klasikoa eta abesbatzena ere har ditzan ziurtatzea.
7. Musika herrikoari arreta mediatiko handiagoa eskaintzea. Arte plastiko, antzerki eta zinemarekin egiten den bezala, musika herrikoa ere aintzat hartu behar da.
8. Katalogo bat egitea, eta web gunean sartzera. Katalogo horrek bilduko lituzke, besteak beste, musikari buruzko aldizkariak, prentsa berezitua, irradi- eta telebista-saioak, kritikarien berri... Eta batetik besterako loturak edo estekak ere eskaini beharko lituzke.

## **SORKUNTZA**

1. Euskal Herriko konposizio-arloa zertan den aztertzea. Musikagileen erregistro bat sortzea, eta musikari buruzko web gunean txertatzea.
2. Liburutegien euskal zerbitzuaren lankidetzara lortzea. Musika-ondarea berreskuratu behar da, eta musikari buruz dugun dokumentazio guztia Eresbilen biltzea komeni da.
3. Musika-batxilergoen esperientzia aztertzea. Interpretatzaile berrien eta entzule trebatuen mintegi izan daitezke.



## **AZPIEGITURAK**

1. Euskal Herrian dauden musika-azpiegituren mapa osatzea. Musika klasikoak, abesbatzek, musika erlijiosoak, pop-rockak eta abarrek darabiltzaten azpiegiturek eta, orobat, erabilera anitzeko ekipamenduak (pilotaleku, kiroldegi...) jasoko dituen mapa bat egitea komeni da.
2. Azpiegituretan dauden gabeziak aztertzea. Gure erkidegoan, azpiegitura-arloan dauden gabezien berri jaso behar da, eragozpen baitira, askotan, Euskadi musika modernoaren Europako zirkuituetan sar dadin.
3. Musika modernoa ezagutzera emateko dauden lokal txiki guztiak ikuskatzea, zer premia dituzten ikusteko eta legeria betetzen dutela ziurtatzeko.
4. Artez bide batzuk finkatzea, eta, kirol-ekipamenduak eraiki edo ikus-entzule asko hartzeko moduko beste edozein ekipamendu prestatzeko orduan, aintzat hartzea, ekipamenduak baliagarri izan daitezten kontzertuak ere antolatzeko. Kontuan hartu behar da, gainera, erraz uztar daitezkeela kondizio akustiko egokiak eta ikus-entzule ugari hartzeko moduko kondizioak, eraikuntzan geometria laua erabiliz gero. Hori aintzat harturik, erabilera anitzeko ekipamendu egoki askoak lortuko dira Euskal Herriko herrietan.

## **LEGERIA**

1. Sarea diru-laguntzek aintzat har ditzatela antzokietan egiten diren musika-ekitaldiak ere.
2. Diru-laguntzak aurreikustea, udal antzokiek musika-programazioa presta dezaten.
3. Artisten, interpretatzaileen eta kidekoen zerga-kontuak ondo aztertzea.
4. Grabazio fonografikoen BEZa txikiagotzea.
5. Mezenasgo lege eraginkorra sortzea.

## **GOBERNU-EKINTZAK**

1. Eusko Jaurlaritzaren sailek bultzatzen dituzten kanpainetan, gure musika era sistematikoan erabiltzea, ezagutzera eman nahi den arloa edozein delarik ere. Halaxe egiten dute, dagoeneko, euskal sukaldaritzarekin, museoekin...
2. Euskadiko liburutegietan, audiotekak indartzea, eta euskal musikaren CDak erosteko diru-laguntzak ematea, liburuak erosteko egiten den era berean.
3. Musika-sektorean dabilzan profesionalek elkarteak sor ditzaten ahalbidetzea.
4. Musikagintzak biltzen dituen sektore guztietako eragileen azterketa bideratzea, eta sektore horietako bakoitzean dituzten trebakuntza- eta ikerkuntza-beharrak eta kidekoak aztertzea.
5. Musikaren zabalkuntza-lanetan, ekimen pribatua indartzea, eta Administrazio gisa izpiritu subsidiarioz jokatzeko; hau da, ekimen pribatua iristen ez den lekuetara iristea eta, orobat, denon interesekoak diren alderdiei arreta eskaintzea.
6. Kaleko salmenta *piratari* aurre egitea. Udaltzaingoak eta Ertzaintzak kaleko zaintza indartuko dute.
7. Norbanakoen salmenta *pirataren* kontrako kontzientziazioa indartzea.

8. Euskadiko Musika Azoka sortzea. Durangoko Liburu eta Disko Azoka egiten den garaian ez beste batean.
9. Euskal musika-jaialdietan diskoetxeak egon daitezzen ahalegintzea.
10. Musika-sektorearen azterketa sakona egitea, adar eta joera guztiak ikertuko dituen; eta, industriaren eta ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta, musika-sektoreak euskal ekonomian zenbateko pisua duen aztertzea.

### **MERKATUA**

1. Entzulearen, publikoaren merkatu-azterketa egitea, eta musika-mota bakoitzak (klasikoak, herrikoiak, rockak...) nolako publikoa duen ikertzea.
2. Euskal Herriarekin mugakide diren eskualdeak hobeto ezagutu eta ikusi zein jende-mota etorriko litzatekeen gure musika-ekitaldietara, gure bezero zein izan daitezkeen. Eskualde horiekin komunikazio-bideak irekitzeko estrategia bat diseinatzea, erabat ahaztuta dauzkagu eta. Kontuan har dezagun, honenbestez, 100-200 km-ko itzulunguru bat eginik —ordubeteko edo ordu biko bidea eginik— ia bi milioi biztanlerengana iristeko modua dugula (Iparralde, Nafarroa, Errioxa, Burgos, Kantabria).

### **EKOIZPENA**

1. Ekoizpen-sektorearen erregistro ofiziala sortzea. Intrusismoari eta zilegi ez den lehiari aurre egiten lagundu dezake erregistro horrek eta, horretarako, web gunean txertatuta geratuko da.

### **ZABALKUNTZA**

1. Euskal Herrian egingo diren jaialdi, azoka eta urteroko ekitaldien mapa egitea. Web gunean txertatu beharreko mapa bat da, eta unean uneko jaialdiarekin lotzeko aukera emango duten estekak eskaini behar ditu. Zer dagoen jakinez gero, erraztasun gehiago izango dituzte agenteek, programatzeko orduan.
2. Herrietako kultur politika sustatzea, Hala, ikus-entzule gehiago sortuko dira eta.

### **BESTE EKINTZA BATZUK**

1. Beste erkidego batzuekin hitz egitea, eta, musika-arlo guztietako zirkuituetan, hartu-emanak ezartzera iristea.
2. Beste herrialde batzuekin harremanetan jartzea, eta musikariak trukatzeko akordioak lortzea. Quebec-ekin halako zerbait egin zen, antzerki-bira bat antolatu zenean. Euskadin egiten diren jaialdiek aukera aparta eskaintzen dute halako trukeak gauzatzeko.
3. Euskadiko Musika Saria sortzea. Antzerki-, zine- eta literatura-sariak sortuta daude dagoeneko.
4. Euskadiko artisten autore-eskubideak zertan diren aztertzea.

5. Kostu-gorakadaren zergatiak ikertzea. Zuzeneko musika-emanaldiak antolatzeke kostuak goraka doaz etengabe, bai areto txikietan, bai munta handiagoko ikuskizunetan.

## **AMAIERAKO OHARRA**

**Txosten honetan adierazitakoa laburpen bat besterik ez da. Euskal Herrian musika herrikoiaren errealitatea zein den laburbildu nahi izan duen txosten hau ez da erabatekoa, baina asmo garbi bat du: sektore honetako espezialistek txosten sendo eta erabatekoagoak egin ditzaten lortzea, ea argi pixka bat egiten duten musika herrikoiaren arlo guzti-guztien oraina eta geroa sendotzeko bidean.**

**Gure herriaren musika askotarikoa da, era askotakoa, eta merezi du ikerketa sendoa egitea. *Chotees* deritzenak, esaterako, desagertu egin ziren, bai eta haiek berreskuratzeko ahaleginak ere, zergatik ez dakigula. Arlo hori eta beste hainbat biltzen ditu musika herrikoiak, eta denek merezi dute gogoeta sakona egitea: trikitixaren susperraldiak, Japoniako taikoren eta txalapartaren arteko mestizaiak, euskal poparen fenomenoak, rock erradikalaren orainak, jaialdiek, azpiegiturek, publikoak, gure musika hemendik kanpo zabalduko duten tresnek, soinuek...**

Getxon, 2003ko uztailaren 16an

Eugenio Gandiaga